



31 - 32 / 0000012

NOMBRE - 0000012  
DIRECCION - 0000012  
20001 MUNICIPIO - 0000012  
PROV - 0000012

Zergadun hori:

Idatzi honen bidez jakinarazi nahi dizugu iaz egin genizun errentako autolikidazio proposamena **aurten EZIN izan dugula prestatu.**

Ahalik eta proposamen gehien prestatzea izan ohi da errenta kanpainetan gure erronketako bat, aurkezpenaren tramiteak errazteko beti. Horrela, lortu dugu urtero 200.000tik gora proposamen bidaltzea.

Zure egoera tributarioa iazkoaren aldean aldatu delako ez dizugu autolikidazio proposamenik egin; gainera, une hauetan ez dugu eskura behar den informazioa proposamena **zehaztasun osoz** prestatzeko.

Hortaz, 2016ko errenta aitortpena aurkezteko obligazioa baldin baduzu, beste modalitateetako edozein erabili beharko duzu: **mekanizatua** -baldin eta lortutako errentaren batek aukera hori eragozten ez badizu-, edo **internet**. Gogoan izan aitortpena aurkezteko epea datorren **apirilaren 18an hasiko dela**, eta apirilaren 11tik aurrera errenta mekanizaturako hitzordua eskatu dezakezula **902 100 040** telefonora deituz edo [www.gipuzkoa.eus/ogasuna/errenta](http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna/errenta) helbidean sartuta.

Adeitasunez,

Jabier Larrañaga Garmendia  
Ogasuneko eta Finantzetako diputatua

